



Elkartasun

tantak

Tigrayrekin

Gotas de  
solidaridad  
con Tigray



Colabora  
Parte hartu

ETIOPIA  
**utopia**  
· TIKAL  
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

## Nor gara?

Etiopia Utopia Tikal Fundazioa, FEU, **irabazi asmorik gabeko erakundea** gara, akonfesionala eta independentea, nazioarteko garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duena

**Tigray eskualdean egiten dugu lan**, Etiopiaren iparraldean, komunitate eta kolektibo behartsuenen bizi-baldintzak hobetzeko.

## Norekin egiten dugu lan?

**Tigrayn, komunitate eta kolektibo behartsuenekin**, elkarrekiko errespetutik eta lankidetzatik abiatuta, toki-administrazioen babesarekin. Era berean, tokiko bazkideak inplikatzeko ditugu, eta haiekin elkarlanean aritzen gara proiektu guztiak aurrera eramateko.

**Euskal Herrian, gizarte osoarekin**, beste eskualde behartsuago batzuetan dauden errealitateen kontzientzia kolektiboa har dezan, eta munduko desberdintasunen gaineko sentsibilitate eta erantzukizun handiagoa sor dadin. Horretarako, **boluntariora-oinarri** sendo bat dugu, garatzen ditugun proiektu eta jarduera guztietan laguntzeko prest dagoena.

## Egitasmo motak

**Hamaika urte** baino gehiago daramagu hainbat arlotako proiektuetan lanean.

**Emakumeak eta haurrak dira biztanleria-talderik ahulenak eta pobretuenak**, eta, horregatik, ugalketa-osasuna hobetzera eta emakumeen benetako ahalduntzea lortzera bideratutako proiektuak babesten ditugu.

Etiopia Utopian uste dugu **hezkuntza garapenerako oinarria dela**; horregatik, egitasmoetan oso garrantzitsua da ezagutzak trukatzeko, bi norabideetan.

Gure proiektuetako bat da **osasan-azpiegiturak** ematea, eta **hilekoaren** gaineko tabuak eraisten laguntzea, **neska-mutilen** arteko **aukera berdintasuna bermatzeko**. Eskoletatik abiatzen gara komunitatetara iristeko.

**Mekelle eta Wukro ospitaleekin** eta **Tigrayko osasan departamentuarekin** ere lan egiten dugu, bertako herritarrek jasotzen duten osasan-arreta hobetzeko.

**Higaduraren eta ur faltaren aurkako borroka** da kezkatzen gaituen eta lantzen dugun beste puntu bat. Tigray eskualdeak klima erdi idorra du eta aldaketa klimatikoaren arazoari aurre egin behar dio. Eskualdeko ibaien egoerak herritarren elikadura-segurtasunari eragiten dio, izan ere, higadurak urtero ereiteko lurra hondatzen ditu.

**Hezkuntzaren kalitatea** arazo bat da, eta landa-eremuetako bi eskoletan euri-ura biltzeko proiektuaren bidez, uraren kalitatea hobetzen saiatzen gara.


Herrietako inguruneetan ur-iturrietara iristea zaila denez, komunitatearekin eta tokiko GKEarekin lankidetzan, **ura biltegitzeko tankeak** eraikitzen dira, geletako teilatuetatik kanalizatuta, eta, ondoren, plastiko botilen bidez, ura eguzkitik desinfektatzeko tratamendua egiten da. Proiektua osatzeko, **komun lehorrak eraikiko** dira. Arreta berezia eskainiko zaio higienaren sustapenari eta hilekoaren higiene-programari.

Azkenik, **kirola** oinarrizko alderdi bat da pertsona ororen bizitzan; horregatik, materialerekin eta elikadurarekin laguntzen dugu Wukroko atletismo-taldea; neska-mutilen osatutako hirurogei haur eta gaztek parte hartzen dute.

## Egungo egoera eta proiektu berriak

Fundaziotik zuregana jotzen dugu, zuzenean eragiten digun egoera baten berri emateko asmoz.


**Pasa den azaroaz geroztik, Tigray eskualdea gerra odoltsu batean murgilduta dago, eta gerra hasi eta 6 hilabetera, 60.000 errefuxiatu baino gehiago ditu Sudanen, milaka desplazatu eskualdean eta lau milioi pertsona inguru premiazko laguntza humanitaria behar dutenak.**



### Ur eta osasun proiektua Diniwaden

Helburua da Diniwade landa-eremuko familiei ura kamioien bidez ematea eta, aldi berean, duintasun-kitak banatzea. Kit horiek materiala dute, inguruko neska eta emakumeek hilekoaren higiene egokia izan dezaten. Proiektu horretarako 50.000 euro bideratzea lortu da oraingoz, eta 6.350 familia hartzen ditu, 2021eko martxotik abuztura bitarteko aldi bat estaliz.

**20.000€ behar dira oraindik.**



### Ur edangarria eta osasuna bultzateko proiektua Messanun

Helburua da ura edangarri bihurtzeko materiala ematea Messanuko landa-eremuko familiei, eta, aldi berean, duintasun-kitak banatzea. Proiektu honetarako 25.000€ lortu dira oraingoz, eta 1.850 familia hartzen ditu barne, 2021eko martxotik abuztura bitarteko aldia betez.

**20.000€ behar dira oraindik.**



### Haziak erosteko proiektua Kilte Awlaelon

Gerra hain bizia ez den zonaldeetako familia nekazariak ekainean hasiko den kanpainan beren soroak erein eta elikatze aukera izan dezaten. Woreda Kilte Awlaeloko landa-eremuetako 1.440 etxeri laguntzea du helburu.

**Proiektuak 30.000€-ko finantziazio-beharra du.**

Fundazioan, lankidetzaproiektuetan ari ginen lanean, baina, egoera berria dela eta, **laguntza humanitarioko proiektuetan** ari gara buru-belarri. Fundazioaren ekintzak gidatu dituzten jarduera-printzipioei jarraituz, ura eta higiena sustatzearekin eta landa-inguruneetan familiei laguntzearekin lotutako proiektuetan zentratzen gara, arreta berezia jarritz neskei eta emakumeei.

**Gatazka hasi zenetik, honako behar hauek azaldu dizkigute:**

# Nola

# lagundu

## Laguntzailea

Zure diru-ekarpena oso garrantzitsua da burutzen ditugun proiektuetarako. Horrela, Laguntzailearen figurari esker, gaur egun EtioPIan gauzatzen ari garen proiektuei jarraipena eman ahal diegu.

Zuk erabakitzen duzu zenbat eman eta maiztasuna.

Sartu [www.etiopiautopia.org](http://www.etiopiautopia.org) eta egin zaitez **babesle**

## Ekimen solidarioak

Pertsona aktiboa eta solidarioa bazara, lagunartean ekitaldi bat antolatzeko aukera baduzu... eta bildutako dirua gure Fundazioaren proiektu bati eman. Ideia solidario bat baduzu, abian jartzen lagunduko dizugu.

Bidal ezazu mezu bat helbide honetara [proyectos@etiopiautopia.org](mailto:proyectos@etiopiautopia.org)

Etiopia Utopia Fundaziotik lanean jarraitzen dugu proiektu guztiak aurrera eramateko behar diren baliabideak lortzeko eta bertako familiei laguntzeko, horiek baitira gerra krudel honetan gehien sufritzen ari direnak.


## Dohaintzak

Dohaintza bat egitea nahiago baduzu, jarraian kontu zenbakiak aurkituko dituzu.

- **Kutxabank** Fundación Etiopia Utopia  
ES27 2095 5001 00 1063671571
- **Caja Laboral** Fundación Etiopia Utopia  
ES61 3035 0060 41 0600140005
- **Bizum** 01025 kodea
- **Paypal**-rekin eta kreditu-txartelarekin dohaintzak egin ditzakezu [www.etiopiautopia.org](http://www.etiopiautopia.org) webgunetik.

Mila esker!

# Yakaniele!





# Harremanetan jarri gurekin

**Fundación ETIOPIAUTOPIA Fundazioa TIKAL**

Mikeletegi Pasealekua, 54, Pta 0, Of. 5,

20009 Donostia, Gipuzkoa.

Tlf: (+34) 943 005 863

[info@etiopiautopia.org](mailto:info@etiopiautopia.org)

[www.etiopiautopia.org](http://www.etiopiautopia.org)



**ETIOPIA**utopia  
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA · TIKAL



Enaitz Semperena - Atifud4 Photography